



**BIKOTE EGONKORREN NAFARROAKO FORU
KOMUNITATEKO ERREGISTRO BAKARRA**

OHIKO GALDERAK ETA ERANTZUNAK

2021/04/14



Aurkibidea

- 1. Zer da bikote egonkorra?**
- 2. Zer baldintza bete behar dira bikote egonkor gisa izena emateko?**
- 3. Zer ondorio ditu bikote egonkorren erregistro bakarrean inskribatzeak?**
- 4. Ba al du kosturik tramiteak?**
- 5. Nora jo behar dut izena emateko eta tramitea egiteko?**
- 6. Zer gertatzen da udaletan inskribatutako bikote egonkorrekin?**
- 7. Bikote egonkorra desegin al daiteke?**
- 8. Baja eman al dakioke inskripzioari?**
- 9. Bikotearen araubide ekonomikoa arautu al daiteke?**
- 10. Zer gertatzen da bizilekua Nafarroatik kanpora aldatzen badugu?**
- 11. Zein data jarriko da bikote egonkorren erregistroan bikotearen hasiera gisa?**
- 12. Nork kontsulta ditzake Bikote Egonkorren Erregistro Bakarreko datuak?**
- 13. Bikote Egonkorren Erregistro Bakarrean inskribatzen bagara, jada ez dugu bikote egonkorren Erregistro Fiskalean inskribatu behar?**
- 14. Nola egiazta dezaket bikote egonkorra erregistroan inskribatua nagoela?**



1. Zer da bikote egonkorra?

Bi pertsona adinez nagusi edo adingabe emantzipatu, ezkontzakoaren antzeko biritza afektiboko erkidegoan, eta agiri publiko gisa eratzeko borondatea adierazten dutenak, Nafarroako Foru Zuzenbide Zibilaren Bilduman aurreikusitako ondorioak lortzeko.

2. Zer baldintza bete behar dira bikote egonkor gisa izena emateko?

Bikote egonkorra eratu eta Nafarroako Foru Komunitatean egoitza berean erroldatu izanaren agiri publikoa aurkeztea (edo egoitza komuna erkidegotik kanpoko bada, foru izaera zibilari eustea).

3. Zer ondorio ditu bikote egonkorren erregistro bakarlean inskribatzeak?

Inskribatzea borondatezkoa da, Nafarroako Foru Berriaren arabera eraturako bikote egonkorren existentziaren frogabide da, bikotekidearen existentzia frogatzeko eta adierazteko.

Zer egiaztatzen du:

- Inskripzio-data.
- Kideak identifikatzea.
- Harreman pertsonalak, familia-harremanak eta ondarezkoak.
- Inskripzioen aldaketen, bajen eta ezerezteen inskripzio-data, hala badagokio.
- Azkentzearen arrazoia, azkentze-data eta, hala badagokio, inskripzio-data.

4. Erregistroko inskripzioa doakoa da?

Bai, Bikote Egonkorren Erregistro Bakarlean inskribatzeak ez du inolako kosturik.

5. Nora jo behar dut izena emateko eta tramitea egiteko?

Nafarroako Foru Komunitateko Bikote Egonkorren Erregistro Bakarraren egoitza Iruñean dago, Iratxeko Monasterioa kalea 22, behea, helbide elektronikoa: registro.parejas.estable@navarra.es

Izapideak telematikoki edo aurrez aurre egin daitezke, **hitzordua** eskatuta. Aurrez aurre, Erregistroaren egoitzan, hitzordua eskatuta.

Telematikoki, Nafarroako Atarian ageri diren izapideen bidez (*gaztelaniaz*):
www.justicia.navarra.es

6. Zer gertatzen da udaletan inskribatutako bikote egonkorrekin?

Udal-erregistroek jada ez dute baliorik.

2019ko urriaren 16tik aurrera, bikote egonkorrek agiri publiko gisa eratzeko borondatea adierazi behar dute, eta bizikidetzako aurreko denbora jaso ahal izango dute inskripzioan.

7. Bikote egonkorra desegin al daiteke?

Bai, azkentzea eska daiteke legez ezarritako arrazoiengatik:

- a) Bikote egonkorra osatzen duten pertsonetako baten heriotzagatik,
- b) bikote egonkorra osatzen duten pertsonen arteko ezkontzagatik,
- c) bikote egonkorra osatzen duen edozein pertsona beste pertsona batekin ezkontzeagatik,
- d) bikote egonkorra osatzen duten pertsonen borondatez (batera edo bikotekideetako baten borondatez, besteari modu frogagarrian jakinarazita), eta
- e) Bizikidetzaz utzi eta bizitza-komunitatea benetan apurtzea.

8. Baja eman al dakioke inskripzioari?

Bikote egonkor batek inskripzioari baja emateko eska dezake, bikotea iraungi beharrik gabe.

9. Bikotearen araubide ekonomikoa arautu al daiteke?

Bikote egonkorra izateagatik ez dago erregimen ekonomiko baten mende. Kideek itunak egin ditzakete, Foru Berriaren 109. legean (*gaztelaniaz*) (<https://www.boe.es/eli/es-nc/lf/2019/04/04/21>) ezarritakoaren arabera.

Lege horretan aipatzen diren itunak inskribatu ahal izango dira.



10. Zer gertatzen da bizilekua Nafarroatik kanpora aldatzen badugu?

Inskripzioak indarrean jarraitzen du, eta edozein unetan alda daitezke helbide berriko datuak, Bikote Egonkorren Erregistro Bakarrean eskaera eginez.

11. Zein data jarriko da bikote egonkorren erregistroan bikotearen hasiera gisa?

Bikotearen eraketa-data, agiri publikoan jasota dagoena. Hala ere, hura osatzen duten pertsonak adierazitako bizikidetzako aurreko denbora jaso ahal izango da.

12. Nork kontsulta ditzake Bikote Egonkorren Erregistro Bakarreko datuak?

Erregistroaren publikotasuna honako hauentzat baino ez da izango: interesdunetatik edozeinentzat, horien kausadunentzat, interes legitimoa egiaztatzen duten hirugarrenentzat, justizia-epaitegi eta auzitegi entzat eta herri-administrazioetako organoentzat, beren eskumenak egikaritzeko.

13. Bikote Egonkorren Erregistro Bakarrean inskribatzen bagara, jada ez dugu bikote egonkorren erregistro fiskalean inskribatu behar?

Erregistro independenteak dira. Erregistro fiskalak bikote egonkorrek [Nafarroako Foru Ogasuna](#)ekin (*gaztelaniaz*) dituen harremanak baino ez ditu ezartzen.

Helburua da jasota uztea indarrean dagoen legeria zibilarekin bat datozen bikote egonkorrek zerga-arloan ezkontzekin parekatzea aukeratu behar dutela.

14. Nola egiazta dezaket Bikote Egonkorren Erregistroan inskribatuta nagoela ?

Arduradunak emandako ohar soilaren eskaeraren bidez edo organo eskudunaren ziurtagiriaren bidez.